

Istripu Aseguru Kolektiboa

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO S.A., Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)



Istripu Aseguru Kolektiboa

Dokumentu honetan aseguruaren alderdi aipagarrienak laburbiltzen dira, eta, beraz, eskaintzen den informazioa ez da osoa. Informazio osoa aseguruaren proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikular eta Orokorretan jasoko da.

Zertan datza aseguru mota hau?

Aseguratuei edo haien onuradunei kalte-ordaina ematean istripu baten ondorioz gorputzean lesioak badituzte edo hil badira, gertaera horretatik erator daitezkeen ondorioak eta premiak arintzeko baliabide ekonomikoak izan ditzaten.



Zer aseguratzen da?

Oinarrizko bermeak:

✓ **Heriotza:** Istripu baten ondorioz, Aseguratua hiltzen bada, kontratatutako kapitala jasoko duite onuradunek.

eta/edo

✓ **Ezintasun iraunkorra baremoaren arabera:** Aseguratuek istripu baten ondorioz gorputzean lesiorik izaten bada eta lesio hori sendatzea posible izango ez dela uste bada, kopuru bat abonatuko zaio, lesioaren larritasunaren arabera, kontratuan jasotako baremoan adierazita dagoen moduan.

Kontrata daitezkeen beste berme batzuk:

- **Ezintasun iraunkor osoa:** Ohiko lanbidean aritzen jarraitzeko erabateko ezintasuna ekartzen duen egoera fisiko atzeraezina.
- **Erabateko ezintasun iraunkorra:** edozein eratako lan-harreman edo jarduera profesional aurrera eramateko erabateko ezintasuna ekartzen duen egoera fisiko atzeraezina.
- **Baliaezintasun handia:** Gainera, bizitzako oinarrizko egintzak egiteko (hala nola, janzteko, mugitzeko, jateko edo antzekoetarako) beste pertsona baten laguntza behar izatea dakarren egoera.
- **Zirkulazio-istripuagatiko heriotzaren** kapital gehigarria.
- **Zirkulazio-istripuagatiko ezintasun iraunkorraren** kapital gehigarria.
- **Osasun-gastuen itzulketa.**
- **Ospitaleratzeagatiko eguneko kalte-ordaina.**
- **Aldi baterako baliaezintasunagatiko eguneko kalte-ordaina.**

Noiz gertatu behar du istripu batek estalita egon dadin?

Hiru aukera kontrata daitezke:

- 24 ordukoa.
- Lanekoa edo profesionala: Lan-jardueran aritzean, lanerako joan-etorriak barne.
- Estraprofesionala edo bizitza pribatukoa.



Zer ez dago aseguratua?

- ✗ Kontratu hau indarrean jarri aurretik gertatutako gaixotasunak eta istripuak, nahiz eta haien eragina kontratua indarrean egon bitartean azaldu.
- ✗ Estalitako istripuak gertatu eta 365 egun igaro ondoren azaltzen diren ondorioak.
- ✗ Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoak estaltzen ez dituen ezohiko gertaerak.
- ✗ Aseguratuek nahita sortutako istripuak, baita bere buruaz beste egitea edo egiten saiatzea ere.
- ✗ Aseguratua edari alkoholodunen, drogen, toxikoen edo sorgogarraren eraginpean dagoenean gertatutako istripuak.
- ✗ Delituzko, zuhurtziagabekeriazko edo zabarkeriazko egintzen ondorioak eta apustu, desafio, duelu edo liskarretan parte hartzearen ondorioak.
- ✗ Edozein eratako edo jatorritako herniak eta haien larriagotzeak, ez eta distentsioak, muskulu-hausturak, lumbagoa, lunbalgiak eta dortsalgia ere.
- ✗ Intsolazioak, izozketak eta tenperatura atmosferikoaren ondorioak.
- ✗ Elikagaiak hartzeagatik izandako intoxikazioa edo pozoidura.
- ✗ Edozein motatako tratamendu mediko-kirurgikoen eta gaixotasunen ondorioak.



Badago murrizketarik estaldurari dagokionez?

Muga nagusiak honako hauek dira:

- ! Berme bakoitzean emango den gehieneko kalte-ordain gisa kontratuan agertzen diren diru-kopuruak.
- ! Osasunaren, Ospitaleratzearen eta Aldi baterako ezintasunaren gastuak itzultzeko, kalte-ordainaren gehieneko epea 365 egunekoa da, kontrakorik hitzartu ezean.



Non nago estalita?

- ✓ Mundu osoan heriotzaren eta baliaezintasun/ezintasun iraunkorren bermeetarako.
- ✓ Europan, geografia-eremua kontratuz zabaldu ezean, aldi baterako baliaezintasunaren, osasun-gastuen itzulketaren eta ospitaleratzeagatiko sorospenaren berme osagarrietarako.



Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko ordainketa kontratuan ezarritako baldintzetan egitea.
- Kontratua formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Erabilgarri dauden baliabideak erabiltzea, ezbeharraren ondorioak arintzeko.
- Seguros Lagun Arori laguntzea istripuarekin zerikusia duten izapideak behar bezala egin ditzan, haren informazio osoa eta egiazkoa emanaz eta horri buruzko jakinarazpen judizial, judizioz kanpoko edo administratiboen berri emanaz.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratua formalizatzeko unean eta haren urteroko berritze-datan egingo da ordainketa. Baldintza partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da, eta bankuan helbideratuz edo zenbatekoa bitartekariari entregatuz egin ahal izango da.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaituko da aseguru. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da.



Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Jakinarazpen idatzia bidaliz, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago.